

Sarrera

Lan hau eginda eta ondoren zabalduta, Eusko Jaurlaritzako Etika Publikorako Batzordearen helburua da 2016an egin duen lanaren berri ematea gizarteari. Gobernu Kontseiluak 2013ko maiatzaren 28an onartu eta urte bereko ekainaren 3an EHAAn argitaratutako Etika eta Jokabide Kodearen (EJK) 16.3 puntuan aurreikusten da memoria egin behar dela, eta, hain zuzen ere, puntu horren arabera EPBri dagokio "Etika eta Jokabide Kodea betetzen dela egiaztatzeko urtero egingo den txostena lantzea". Txosten hori Gobernu Kontseiluari aurkeztu behar zaio, jakinaren gainean egon dadin eta hark ontzat ematen dituen gainontzeko ondorioak izan ditzan.

1

Balorazio positiboa

2016. urteak amaiera eman dio Eusko Legebiltzarraren X. Legealdiari, 2012ko abenduan hasi zen eta. 2016ko abuztuaren 1eko 23/2016 Dekretuaren bidez, Lehendakariak erabaki zuen Eusko Legebiltzarra desegin eta hauteskunde autonomikoetarako deia egitea irailaren 25erako. Hori dela-eta, ondorengo hilabeteetan, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren jarduera baldintzatuta geratu zen hauteskundeak izateak zekarren agendagatik, lehendabizi, eta, hautetsontzietan izandako emaitzen arabera, Eusko Jaurlaritzaren berriaren eraketagatik ondoren.

Etika Publikorako Batzordea sortu zen legealdia amaitu da, eta horrek bide eman du berresteko, beste behin ere, erakunde autonomikoek balorazio positiboa egiten dutela Batzordea onartu eta abian jartzeak ekarri duen esperientziaz.

Hain zuzen, hauteskundeak egin ondoren osatu den Eusko Jaurlaritzak –koalizio-gobernua da, aurretik izandako kolore bakarreko kabineteaz bestelakoa formalki– ez du bertan behera utzi EPB onartzean abiatutako integritate instituzionalaren sistema, baina ez hori bakarrik: indar sinboliko handiko keinu bat eginez, Lehendakariak izendatutako sailburuak karguaz jabetzearekin batera, Kodearen testu bateginaren testua argitaratu du, non, EPB honek 2015eko Memorian egindako gomendioei jarraikiz, azken urteotan testuan egin diren aldaketa guztiak biltzen dituen¹, eta, horrela, argi eta garbi adierazi du, XI. Legealdiari begira, apustu egiten duela politikaren zentzu etikoari eusteko eta herritarrek erakundeetan eta haien zerbitzura diharduten arduradun publikoengan duten konfiantza indartzeko.

¹ 67/2016 Ebazpena, azaroaren 22koa, Erakunde Harremanetarako sailburuordearena, 2016ko azaroaren 28ko EHAAn argitaratua (226. zk.).

2

EPBren osaeraren jarraipena, legealdia aldatuta ere.

Legealdi aldaketak, jakina, zalantza sortu du, EPB osatzen dutenek –batik bat Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikotik kanpokoak direnek– karguan jarraituko duten ala ez.

EJKren 16.2 artikulua ezartzen duenez, Batzorde horren berezko kideez gain, organo horretan arituko dira “erakundeen etikarekin, zuzenbidearekin edo gobernantzarekin lotutako gaitan esperientzia, gaitasun eta ospe profesional egiaztatua duten bi pertsona, sektore publikotik zein pribatutik etor daitezkeenak, Eusko Jaurlaritzak izendatuak”. Baina ez du ezer ezartzen haien agintaldiaren iraupenaz.

Behin hautetsontzietatik ateratako gobernua eratu ondoren, eta EJKren 16.2 artikulua a), b) eta d) puntuetan aipatzen diren pertsonen karguan jarraituko zutela berretsita, Elisa Pérez Vera batzordekideak –EJK-ko kide sortze beretik, 2013ko irailetik– Eusko Jaurlaritzaren esku utzi zuen bere kargua, iruditzen zitziolako Batzordearen kanpoko kidea konfiantzazko kargu bat dela eta Jaurlaritza berriak askatasun osoz hautatu behar duela.

Gobernuak, ordezkatu beharrean, kargua betetzen jarraitzeko proposatu zion, garrantzitsutzat jo baitzuen Eusko Jaurlaritzaren integritate instituzionalaren sistema abian jartzeko eta EPBk ondo funtzionatzeko egin zuen ekarpen kualitatiboa. Proposamena onartu egin zuen batzordekideak, eta, hortaz, berehala berretsi zen bere izendapena.

Txetxu Ausín Díez kanpoko beste kidearen balizko ordezkapenak ez zuen zentzurik; izan ere, eta hala nabarmendu zen 2015eko ekitaldiari zegokion Memorian², 2015eko martxoaren 17an sartu zen EPBn, Daniel Innerarityren ordezkari, hark Batzordearen kanpoko kide izateari utzi eta bere ordezkari beste bat jartzeko eskatu baitzuen, hauteskundeetako hautagaitza bateko kide izateak gaitasunik gabe uzten zuelako objektibitate, independentzia eta inpartzialtasun handiko funtzio publiko bat

² Eusko Jaurlaritzako Etika Publikorako Batzordearen Memoria, 2015, 13-14 orr.

betetzen jarraitzeko. Organoan denbora gutxi zeraman –urte eta erdi baino apur bat gehiago–, eta hori argudio erabakigarria zen organoko kide izaten jarrai zezan.

Ondorioz, memoria honek aztergai duen urtea amaitzean, honako hau da EPBren osaera:

Batzordeburua: Josu Iñaki Erkoreka Gervasio (Gobernantza Publikoko eta Autogobernuko sailburua)

Batzordekidea: Andres Zearreta Otazua (Funtzio Publikoko sailburuordea)

Batzordekidea: Elisa Pérez Vera

Batzordekidea: Txetxu Ausín Díez

Idazkaria: Maite Iruretagoiena Ibareguren (IVAPeko zuzendaria)

3

EPBren eskariz EJKn egindako aldaketak

EJK dokumentu ireki eta malgua da; gizartearen eskaeretara eta herritarren exijentzietara moldatzeko eta egokitzeko pentsatua dago, betiere kargu publikodunei haien jokabidea une bakoitzeko zintzotasun- eta etika-eskakizunetara moldatzeko xedez. Hala adierazten du EJKren hitzaurreak, kode ireki gisa eratu dela esaten duenean: "Izan ere, sartutako jarraipen-sistemaren bitartez kodearen edukia urtean behin aztertu nahi da eta adierazpenak hobetu, baita jokabide edo portaera jakin batzuk sartu ere, hain zuzen, egokitzen joko direnak, gizartearen bilakaeraren eta eskakizunen arabera, Goi Mailako Zuzendaritza Betearazlearen osotasun-irudia indartzeko eta, hartara, euskal herritarrek erakundeengan duten konfiantza sendotzeko".

EJKren 16.3 artikuluan ezarritakoa baliatuz –puntu horretan gaitasun hau ematen zaio EPBri: "Etika eta Jokabide Kodean egin beharreko aldaketak proposatzea Gobernu Kontseiluari"–, gomendio hauek eman genituen, besteak beste, 2015ari dagokion memorian:

Lehenengoa: EJKren 15.5 artikulua aldaketa puntuala egitea, berriki Prozedura Kriminalaren Legean egin diren aldaketa terminologikoetara egokitzeko; zehazki, prozedura penalaren barruan inputatuaren figuraren inguruan egindako aldaketak dira.

Bigarrena: EJKren testu bategina prestatu eta argitaratzea, kode hori erabili behar dutenek bertsio kontsolidatu bat izan dezaten bertan agintzen dena hobeto ezagutu eta betetzeko.

Bi eskaera horiek aintzat hartu ditu Eusko Jaurlaritzak; izan ere, 2016ko azaroaren 22ko Akordioaren bidez (2016ko azaroaren 28ko 226 zk.-ko EHAAn argitaratua, Erakunde Harremanetarako sailburuordearen azaroaren 22ko 67/2016 Ebazpenaren bidez), Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa eta bere sektore publikoko kargu publikodunen Etika eta Jokabide Kodearen testu bategina onartu zuen, hasierako onarpenetik egindako aldaketa guztiak bilduz, eta, horrez gain, errazago erabil dadin eta gehiago bete dadin, 15.5 atala –gaur egun, aldaketa egin ondoren, 15 d)– beste modu batera idatzi zuen, “egozpen” dioen lekuan “ikerketa” jarritz.

Baina testu bateginak beste berritasun zehatz batzuk ere ekarri ditu, Eusko Jaurlaritzak proposatuta, bere agindu batzuk eraginkorragoak izateko eta dagoeneko EJKn ezarrita zeuden eskakizun etiko batzuetan sakontzeko xedez. Aldaketa horiek EPB honen oniritzia jaso dute, eta, honako hauekin lotuta daude, batik bat:

- Kargu publikodunek, baldin eta balizko interes-gatazka baten eraginpean badaude, euren abstentzioa formalizatu behar dute Funtzio Publikoko Zuzendaritzako Langileen Erregistro Zerbitzuan –ekainaren 26ko 1/2014 Legearen bidez sortua– (11.3 e) artikulua). Jatorrizko testuan, kasu horiek EPB honi jakinarazi beharra baino ez zen jasotzen.
- Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari baimena ematea kargu publikodunen errenta-aitorpenari eta, hala badagokio, ondarearen zerga-oinarriari buruzko informazioa argitaratzeko. Baimena emateko betebeharrak hori Eusko Jaurlaritzak gardentasunaren esparruan jarritako jarraibideek ezartzen dute (13 k artikulua).
- Halaber, kodeari atxikitzeko prozedura berrikusia sartu da Etika eta Jokabide Kodean. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio eta bere sektore publikoko kargu publikodunak kodeari atxiki zaizkionean, adierazpen horren kudeaketa eta segurtasuna ondo egitea sustatu nahi izan da aldaketa horren bitartez (18. zenbakia).

Azken batean, beste aldaketa batzuk ere egin dira, kargu publikodunen jokabide-kodea arautzen duten printzipio orokorrak eta Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dituen 2014ko ekainaren 26ko 1/2014 Legearen beste agindu batzuk formalki sartzeko, eta EJKren funtzionamenduarabidea Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeari egokitzeko, EJK administrazio-organo den heinean.

4

Prestakuntza- eta zabalkunde-jarduerak

2014ko ekitaldiari dagokion memoriako "Ondorioak eta Gomendioak" kapituluan, "EPBk EJK hartzaileen kolektiboaren artean hedatzeko ahalegina areagotzea" gomendatu genuen, "une bakoitzean eraginkorrenak diren hedapen eta prestakuntzarako mekanismoez baliatuta" horretarako. Horrez gain, positiboki baloratu genuen sei hiletik behin EJKri atxikita dauden langileentzako hitzaldiak antolatzeke ekimena.

2016. urtearen bigarren zatia hauteskondeek baldintzatu dutenez, ekitaldi horretan hasiera batean sei hilabete behin egitekoak ziren hitzaldietatik bakarra egin da. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (IVAP) EJKri atxikita daudenentzako lan-saio bat antolatu zuen apirilaren 13an, eta Francisco Longo Martínez mintzatu zen, "Zerbitzu publikoaren gaur egungo balioez".

Bestalde, administrazio publikoen etikari buruz argitaratu zen *Pertsonak eta Antolakunde Publikoak Kudeatzeko Euskal Aldizkariaren* zenbaki monografiko bat (9. zenbakia). IVAPek argitaratzen du aldizkari hori, eta, esparru akademikoaz haratago, zabalkunde handia du administrazio autonomikoaren zuzendaritzako langileen artean.

Zenbakia Manuel Villoria Mendietak koordinatu zuen, Politika eta Administrazio Zientzietako katedratikoak, eta, bere lana osatzeko, artikulua bat idatzi zuen, etikak sektore publikoan duen zeregina mugatuz eta etika sustatzeko moduez gogoeta eginez. "Ikerketak" izeneko atalean, Elena García Guitián Zuzenbidean doktorearen lan bat jasotzen da epaiketa politikoari eta politikariei egiten zaien epaiketari buruz, eta Txetxu Ausín Diezen artikulua bat ere bai (CSICko Etika Aplikatuaren Unitateko zuzendaria eta EPBko kidea da), konfiantza sortzeko etika publikoari buruz.

"Azterketa eta eztabaida juridikoa" izeneko atalean, Concepción Campos Acuña, Vigoko Udaleko idazkariak, Gardentasunaren Legean etika-kodeak eta tokiko gobernu onak duten lekua aztertzen ditu. Zenbaki horretan bada Victoria Camps Etika-katedradunak emandako elkarrizketa bat ere; etika publikoarekin lotutako hainbat gai aztertzen dira, etikaren eta politikaren arteko tentsioa eta zerbitzari publikoen betebeharrak eta guztion ona, esaterako.

Memoria honen ondorioetarako, azpimarratu beharra dago Elisa Pérez Veraren artikulua (beherago aipatzen da): EAEk ustelkeriaren aurkako borrokan sektore publikoan izandako esperientzia orokorraren esparruan, Eusko Jaurlaritzaren Etika eta Jokabide kodea eta Etika Publikorako Batzordeak gauzatutako jarduera dira bere ikerketaren muin.

Gainerakoan, EPBko kideek lanean jarraitu dute, Eusko Jaurlaritzak hartutako integritate instituzionalaren ereduaren inguruan pilatu duten esperientzia hedatzen. Lan horren erakusgarri da ondoren zerrendatzen diren kongresu eta foroetan parte hartu izana:

- Jardunaldia: “Gobernantzaren erronka berriak Gipuzkoarentzat”. Donostia, 2016ko apirilaren 29a. Hitzaldia: “Eusko Jaurlaritzaren Etika Publikorako Batzordearen esperientzia”, Elisa Pérez Veraren eskutik.
- Hitzaldia: “Balio al dute ezertarako etika publikoko kodeek?”, Txetxu Ausín Díezen eskutik. Epailtza Federalaren Institutua-Eskola Judiziala. Mexiko, 2016ko ekainaren 30a.
- Ikastaroa: “Etika publikoa eta ustelkeriaren prebentzioa gobernuetan eta administrazio publikoetan. Udako Eskola Konplutensea, Madrilgo Unibertsitate Konplutensea, 2016ko uztailaren 7a. Hitzaldia: “Etika publikoaren teoria eta praktika: EAEko adibide batzuk”, Txetxu Ausín Díezen eskutik.
- Osakidetzaren II. Prestakuntza Astea, I. Mahaia: “Gardentasuna eta etika publikoa”. Donostia, 2016ko urriaren 25a Hitzaldia: “Eusko Jaurlaritzaren Etika Publikorako Batzordearen esperientzia”, Elisa Pérez Veraren eskutik.

Foro horietako batzuetan egindako saioak argitalpenetan jaso dira; kasurako:

PEREZ VERA, Elisa: “La reciente experiencia en la CAPV. Código Ético y Comisión de Ética Pública”, *Revista Vasca de Administración Pública. Herri-Arduralaritzako Euskal Aldizkaria*, ISSN 0211-9560, 104. zk., 2, 2016 (Ustelkeria politikoaren aurkako ale monografikoa), 293-316 or.

PEREZ VERA, Elisa: “La ética pública en tiempos de crisis (XXIV Conferencias Aranguren)” *ISEGORÍA, Revista de Filosofía Moral y Política*, 54. zk., 2016ko urtarrila-ekaina, 13-49 or.

PÉREZ VERA, Elisa; IRURETAGOIENA IBARGUREN, Maite: “Eusko Jaurlaritzaren Etika Publikorako Batzordearen esperientzia”, *Gobernuari, Administrazioari eta Politika Publikoei buruzko Nazioarteko VII. Kongresua*, GIGAPP, 2016ko urriaren 3tik 5era, 2016-367 erref.

Gainerakoan, Eusko Jaurlaritzaren integritate instituzionalaren ereduaren inguruan bildutako esperientzia ere aztergai du literatura espezializatuak. Hauek dira EBP eta bere jarduna oro har positiboan aipatzen duten argitalpen berrienetako batzuk:

JIMÉNEZ ASENSIO, Rafael: “Códigos de conducta en las Administraciones Públicas: algunas reflexiones”, *Cuadernos de Derecho Local*, ISSN 1969-0955, 2017ko otsaila, 106-199 or.

ORDÓÑEZ SOLÍS, David: “Ética y buen gobierno en las administraciones españolas”, *Actualidad Administrativa*, ISSN 1130-9946, 11. zk., 2016ko azaroa.

5

Memoriak jorratutako aldi aztertutako gaiak

2016. urtean, EPBk zortzi erabaki hartu ditu. 2015ean baino bost gutxiago, 2014an baino hiru gutxiago, eta 2013an baino sei gutxiago. Sortu denetik, jarduera gutxien izan duen urtea da, argi eta garbi.

Baina datu hori aztertzeko, kontuan hartu behar da, lehen azaldu bezala, urtearen bigarren zatia Lehendakariak irailaren 25erako egindako hauteskunde-deialdiak markatuta egon zela. Zuzendaritzako goi-karguetan balizko aldaketa bat egiteko aukera izateak –zentzuzkoa eta ohikoa ere bai, bestalde, txandatzea ezagutzen duen erregimen demokratiko baten esparruan– aztoratu egin ohi du administrazio publikoaren ohiko jarduna. Aztoratze horrek inolaz ere ezin du balio izan kargu publikodunen tentsio etikoa lasaitzeko, baina, ezinbestean, dilema etikoen planteamenduak murriztea dakar, talde horren jarraipena, neurri batean ala bestean, ziurgabetasunak jota dagoelako, eta zenbaitetan kargu publikoa betetzen ez jarraitzeko erabaki pertsonal irmoa ere hartzen delako.

Kasu gehienetan –zehazki, zortzitik seitan–, EPBk kontsulta gisa aztertu ditu heldu zaizkion gaiak. Gainerako bi kasuetan, salaketa baten ondorioz izan genuen haien berri. Kasu horietako batean, salatzailea identifikatu zen, eta, beste salaketa berriz, anonimoa izan zen.

Kontsultei dagokienez, kontsulta guztiak interesdunek egin zituzten.

Kasua azaltzeko modua	Kasu-kop.
Kontsulta	6
Salaketa	2
Guztira	8

Hauek dira 2016an hartutako erabakien alderdirik aipagarrienak:

a) Salaketa anonimoak eta haien ondorioak

1/2016 Erabakian, salaketa anonimo bat jaso eta izapidetu zen, 3/2014 eta 1/2015 erabakietan kasu horietarako ezarritako irizpidearen arabera. Baina salatzaile anonimoak egindako akusazioak orokorrak eta zehaztugabeak zirenez –eta, hain zuzen ere, salatzailea anonimo izateagatik beragatik, ezin zaionez salatutakoa gehiago zehazteko eskatu– ezin izan zen gomendiorik egin. Lehendik ere esana dugun bezala, salaketa anonimoa izatea ez da eragozpen EPBk salaketa izapidetzeko onar dezan eta haren muinean dauden gaiei hel diezaien –izan ere, horri uko egiteak JEKren postulatuetatik inoiz urruntzen diren jokabide eta portaerei kode hori ahalik eta gehien aplikatzeari uko egitea ekarriko luke, hasieratik bertatik. Baina formula hori hautatzen duenak, hori eginda, uko egiten dio kontraesan-prozedura batean parte hartzeari eta salaketari amaiera ematen dion erabakiaren jakinarazpena jasotzeari.

Salatzaile anonimoak bere gain hartzen duen arrisku bat da, eta hartaz ohartarazi genuen goian aipatutako erabakietan, baina kasu honetan agerian geratu zen ikusteko moduan: salatzailea anonimoa zenez, eta salatutako gertaerak zehaztugabeak, ezin izan zitzaion bere idatziari zehaztasun handiagoa emateko eskatu, eta, ondorioz, ezin izan zen kasuari egokitutako gomendiorik egin.

b) Kasua Administrazioak laneko segurtasunaren eta osasunaren esparruan indarrean dagoen araudia betetzeko sortutako organoen jakinaren gainean jartzeko aukera

1/2016 Erabakian, bestalde, gomendio bat egin genuen lehendabiziko aldiz, berriz egin genuen ondoren 2/2016 Erabakian, eta etorkizunean har litezkeen beste erabaki batzuen gidari ere izan liteke: EPBri jakinarazitako gertaerak –talde bateko kideen arteko lan-harremanak hondatzearekin lotutakoak– Administrazioak laneko segurtasunaren eta osasunaren esparruan indarrean dagoen araudia betetzeko sortu dituen organoei jakinarazteko aukera iradokitzea.

Nahiz eta ez den EJK-n espresuki aurreikusitako aukera bat, lan-giro txarrari lotutako hainbat alderdi nekez konpon ditzake EPB honek, esleituta dituen zereginen esparruan, eta hobetu egokitu daitezke, aldiz, horrelako organo espezializatuetan. Bistakoa dirudi, bestalde, horrelako organoetara jotzea, beti ere haiek esku hartzeko legez ezarritako baldintzak betetzen badira, kargu publikodunek saihesten ezin dezaketenez betekizun etiko bat dela.

c) Zerbitzua hobetzen inplikatzeko betebeharra, etikoki exijitu beharreko obligazio gisa.

Aurreko epigrafean azaldutako iritziarekin estu-estu lotuta, 2/2016 Erabakian proposamen berritzaile bat egin dugu, gure aurreko erabakietan aurrekaririk ez

duena, eta Etikatik zerbitzu publikoa hobetzeko konpromiso aktiboa ateratzeko potentzial garrantzitsua du.

Salaketa egin zigunak bidali zizkigun agirien artean, diziplinazko espediente bat zegoen, eta instrukziogileak –EPBren esku utzitako gaia sortu zen erakunde publikotik kanpokoa da eta, hortaz, inpartzialtasun eztabaidaezinekoa du eta alegazioak egin zituztenek ere ez zuten zalantzan jarri– ikusi zuen zerbitzuaren funtzionamenduan bazela behar beste kasu egiten ez zitzaion “hobetzeko arlo” bat; kasu hau sortu zen administrazio-unitateko kideen arteko harremani buruzkoa zen ohar hori, harreman horiek eragin negatiboa zuten zerbitzu publikoan, eta hori ezin zen oharkabean geratu gaia ikuspegi etiko batetik aztertzean.

Bai Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta haien Interes Gatazkak arautzen dituen Legeak bai EJK-k barruan biltzen dituzte, hain zuzen, kargu publikodunek zerbitzua hobetzeko daukaten konpromisoarekin eta beren ardurapeko administrazio-unitateetan baliatu behar duten lidergoarekin zerikusia duten balioak, printzipioak eta portaerak.

Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta haien Interes Gatazkak arautzen dituen Legearen 7. artikulua ezartzen duenez, kargu publikodunek eta parekoek “ikuspegi estrategikoari eta planifikazioari lehentasuna” eman behar diete, “arazoen eta etorkizuneko erronken irtenbidea aurreikuste aldera”; bilatu behar dute “estrategiak, helburuak eta baliabideak ildo beretik joatea, goi-mailako zuzendaritzako maila politikoak eta zuzendaritzako nahiz bitarteko mailak aintzat hartuta eta, halaber, dagokien erakundean lan egiten duten gainerako pertsonak ere bai”, eta “karguari lotutako eginkizunak etengabeko ahaleginaz” bete behar dituzte, “gidatzen duten saileko edo unitateko prozesuak, produktuak eta zerbitzuak beti hobetzeko eta pertsonen gaitasun profesionalak garatzeko”.

Bide beretik, EJKren 7. artikuluan xedatzen denez, kargu publikodunek beti ahalegindu behar dute “gidatzen duten saila edo unitatea etengabe hobetzeko”, eta “baliabideen erabilera eraginkortasuna lortzea izango dute helburu, baliabideak pertsonalak izan nahiz teknologikoak edo kudeaketa-prozesuen arlokoak”. Halaber, 8. artikuluan eskatzen zaie, politikaren eta kudeaketaren bat-etortzearen ondorioz, “jomugak eta helburuak partekatzea” eta “lana elkarrekiko leialtasun-giroan, konfiantza-giroan gauzatzea”. Eta 9. artikuluan eskatzen zaie langile publikoen artean “inplikazioa, buru-belarri aritzea eta leialtasuna” transmititzeko eta exijitzeko. Halaber “lantaldeen trinkotasuna sustatuko dute, eta elkarreragina eta jarrera proaktiboa bultzatuko dituzte haien funtzionamenduan”.

Portaera-arau eta jarraibide horietan guztietan, kargu publikodunei zorrotz eta zuzen eskatzen zaie beren ardurapeko arloetan “hobetu beharreko” alderdiak daudenean – eta hala gertatzen zen aztergai genuen kasuan– hobetu ditzatela. Hala, “kideei

adierazi behar zaie bakoitzak bere eginkizunak hartu behar dituela bere gain, argi zehaztu behar zaie zeintzuk diren bakoitzaren eginkizunak, behar izanez gero, eta kide guztien entzute aktibo eta positiboaren beharra erakutsi behar zaie, ezustean gerta litezkeen egoeretan berehalako erantzun koordinatua lortze aldera; eta, azkenik, erakutsi behar zaie lantaldeko kideen arteko harreman pertsonaletan guztiz ezabatu behar direla lanbide-jardueraren funtzionamendu ahalik eta onena eragotz dezaketen eragin negatibo guztiak”. EPB honek –orduan hala esan genuen– ez luke ezarri zaion eginkizuna egoki beteko gogora ekarriko ez balu Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta haien Interes Gatazkak arautzen dituen Legearen eta EJKren aginduek, lidergoari, bikaintasunari eta politikaren eta kudeaketaren arteko bat-etortzeari dagokienez, “konponbidearen bila pertsonalki ahalegintzera behartzen dituztela [...] andrearen aurka izapidetutako diziplina-espedienteko instruktoreak bere ebazpen-proposamenean azaldu dituen antolaketa-akatsak, harremanetakoak eta funtzionamendukoak beren ardurapeko eremuan detektatu zaizkien kargu publikodunak”.

Eta iritzi horrekin koherente izanez, ebazpen-zatiko 6. artikuluan tartean zeuden kargu publikodunei gogorarazten zitzairen EPBn ezarritako jokaera-arauek, lidergoarekin, bikaintasunarekin eta politikaren eta kudeaketaren arteko bat-etortzearekin lotuta, “behartzen dituztela pertsonalki ahalegintzera, esleituta dauzkaten eskumenen eremuan, “hobetzeko” arlotzat jo diren hobekuntzan inplikatzera”.

d) Epaitegian ikertu gisa deklaratzera deitutako kargu publikodunek EPB honi egin beharreko kontsulta deklarazioa eta eredugarritasun-printzipioaren bateragarritasuna ponderatzeko aukera ematen duten baldintzetan egin behar da.

2015eko ekitaldiari dagokion Memorian, nabarmendu genuen ekitaldi horretan prozedura judizial penalen baitako kargu publikodunen ikerketarekin lotutako gaiak aurkeztu zirela lehendabiziko aldiz. Horren ondorioz, EPBk doktrina bat formulatu zuen EJKren 15 d) artikulua xedatutakoaren inguruan, zeinaren arabera “Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa eta haren sektore publikoko kargu publikodunen bat edozein prozesu penaletan ikertuz gero karguari dagozkion egiteko publikoari lotutako gertaeren ondorioz edota garrantzi publiko berezia duten ekintzen ondorioz, horren berri emango zaio Etika Publikorako Batzordeari, kasu bakoitzean egoki iritzitako gomendioak eman ditzan”.

Orain interesatzen zaigunari dagokionez, doktrina honek, funtsean, EPBren esku jartzen den kasu bakoitzaren gorabehera zehatzek dakartzaten modulazioak gorabehera, defendatzen du eredugarritasun-printzipioa betetzeak ez diela eragotzen kargu publikodunei haien funtzioak betetzea, ahozko epaiketa ireki bitartean, hala bada kasua.

Aipagai dugun doktrina 4/2015 Erabakian defendatu zen lehendabizikoz, eta berriz baliatu zen urte bereko 5, 6, 9 eta 13 zenbakiko erabakietan.

Bada, Memoria honek aztergai duen ekitaldian, berriz heldu zaio, 3/2016, 4/2016, 6/2016, 7/2016 eta 8/2016 erabakien bidez ebatzitako kasuei erantzuteko. Horietan guztietan, erabaki da kargu publikodunak “Justizia Administrazioari laguntzen jarraitu behar duela”, eta ulertu da ez dagoela eragozpenik “betetzen duen karguan jarraitzeko, harik eta epaile eta auzitegi eskudunak ahozko epaiketa hasteko autoa ematen duen arte”. Azken hipotesi hori betez gero, “eraginpeko karguduna kautelaz kargutik kentzea” gomendatzen da, eta, “prozedura izapidetzean egiaztatzen bada kargu publikodunak ez duela erantzukizunik, berriro emango zaio kargua [...] edota dagozkion bitartekoen bidez errehabilitatuko da”. [EJKren 15 d) artikulua]

Adierazi behar da, hala ere, 8/2016 Erabakiak aztertzen duen kasuan oso gorabehera berezi bat gertatu zela, eta horrek neurri batean berritzailea zen ebazpen bat ekarri zuela.

Egia esan, aurrez EBP honek ezagutu dituen kasu guztietan ohikoa izan denaren aurka, kasu hartan, kargu publikodunaren kontsulta –EJKren 15 d) artikuluan ezarritakoa– ez zen egin ikertu gisa deklaratu aurretik, baizik eta izapide hori bideratu eta hiru aste eta egun bat geroago. Are gehiago, kontsulta hori egin da oposizioko hautetsi batek, prentsan argitaratutako informazio batean oinarrituta, Eusko Legebiltzarrean kontsulta-egileak EJK betetzen ote zuen izen-abizenez galdetu eta gero.

EJK-k ez du kontsulta egiteko eperik zehazten. Baina bistakoa da EPB-k EJK-ren 15 d) artikuluan exijitzen zaion esku-hartzea eginez lortu nahi duen helburua dela ponderatzea, hain zuzen ere, kargu publikoari ikertu gisa deklaratzera joateko zitazio judiziala bidaltzea zein modutan izan daitekeen bateragarria eredugarritasun-printzipioarekin; eta hori, bistan denez, epailearen aurrean deklaratu baino lehen soil-soilik egin daiteke seriotasunez, zorrotasunez eta bermeekin. Baina deklarazio hori egindakoa, gertatu da dagoeneko, halakorik badago, irudi instituzionalari egiten zaion kaltea, aurrez kontsulta eginez saihestu nahi den hori, alegia. Bestela esanda: edo kontsulta epailearen aurrean deklaratu baino lehen egiten da, edo EPBk ematen dion prebentzio-izaera hori galtzen du, eta, hortaz, desitxuratu egiten da.

Aztertutako kasuan, eragindako kargu publikodunak kontsulta noiz egin zuen ikusita –epailearen aurrean deklaratu ondoren eta, are gehiago, gaia prentsan agertu eta oposizioak kontua Legebiltzarrera eraman ondoren–, ondoriozta zitekeen gaia EPB-ren esku jartzeko hartutako erabakia ez zela izan EJK-n jasotako jokabide-arauei bere borondatez atxikitzeak ekarritako berezko ondorioa, oposizioaren ekintza parlamentarioak bultzatutako erabakia baizik.

Horri dagokionez, azpimarratu beharra dago EPB honek kargu publikodunen kontsultei ematen dizkien "gomendioak" kasu zehatz bakoitzaren inguruabarretara egokitu behar direla, eta erabakiren batean –edo batzuetan– ebatzitako konponbidea ezin izango dela gainerako guztietan aplikatu. Gogoan izan, EJK-ren 15 d) artikulua ezartzen duenez, EPBk “kasu bakoitzean” eman behar duela gomendia. Horrek esan nahi du “kasu bakoitzak” kontsulta propio eta berariazko bat ekarri behar duela, segurutzat jo gabe aurreko kontsultei emandako erantzunak mimetikoki aplikatu daitezkeela. Hori lagungarri izan daiteke, bestalde, etika publikoaren ikuspegitik oso garrantzitsua den zerbait finkatzeko: jardunbide egokien kultura izatea goi-karguen artean, administrazio-erakundeetan ohitura osasuntsuak sortzeko eta zerbitzari publikoen artean uste sendoak eratzeko.

Hori guztia dela-eta, iruditzen zaigu kontsulta berandu egiteak EJK-ren 3.2 artikulua “etika- eta jokabide-arauak behar beste ez betetze” gisa kalifikatzen duena ekarri zuela.

e) Prozedura penal baten barruan epaitegian ikertu gisa deklaratzera deitutako kargu publikodunei dagokienez EPB-k erabilitako irizpidearen baliagarritasuna

Prozedura penal batean ikertu gisa deklaratzeko deitutako kargu publikodunei dagokienez orain arte izandako kasuetan EPB honek bildu duen eskarmentuak agerian uzten du zuhurra, egokia eta orekatua dela 5/2015 Erabakia hartu zenetik izan dugun irizpidea. Hari esker, izan ere, ez dago arriskurik prebentziozko neurri profilaktikoak eskatzeko orduan azkarregi ibiltzeko eta tartean diren pertsonen irudi publikoari kalte konponezina egiteko; batez ere, alderdien lehia politikoaren bultzadaz edo borroka sindikalaren esparruan hasitako prozedura judizialetan.

Kargu publikodun batek ikertu gisa deklaratzeko zitazio judiziala jaso duela-eta EPB honi 2015ean eta 2016an egin zaizkion bost prozesu penaletatik bitan, kasuan kasuko instrukzio-epaitegiak kausa eta egindako jarduketak artxibatzea erabaki zuen. 6/2015 eta 9/2015 Erabakien bidez ebatzitako kasuak dira. Hirugarrenean, zeinak bost kargu publikoduni eragiten dien –bakoitzak bere aldetik egin zuen kontsulta, EJK-ren 15 d) hizkian jasota dagoenez–, organo judizialak kausa behin-behinean artxibatzeko agindua eman zuen ikerketapean zeuden kargu publiko guztientzat eta kausaren instrukzioan aztertutako gertakari guztiak zirela eta. Etika Publikorako Batzorde honek ebatzitako kasuoz ari gara: 13/2015, 3/2016, 4/2016, 6/2016 eta 7/2016 Akordioak. Gainerako bietan –5/2016 eta 8/2016– orain artean ez da kontsulta egin zuten kargudunen egoera prozesala aldatu duen ebazpenik eman.

Behin-behineko balantze horrek, ikusirik orain artean zazpi kausa artxibatu egin direla eta bakar batean ere ez dela ireki ahozko judizioa, berretsi egiten du gure hautua: kasu hauetan exijentziaz jokatu behar da, baina zehurtziaz.

A) GAI-MOTAK	
I.	KARGU PUBLIKODUNEK HAIEN ZEREGINAK BETETZEN EGINDAKO JARDUKETEI BURUZKO GAIA (2)
GAIA: 1/2016 SALAKETA ANONIMOA	
GOMENDIOA: ADMINISTRAZIOAN LANEKO SEGURTASUNAREN ETA OSASUNAREN ESPARRUAN SORTUTAKO ORGANOEI JAKINARAZTEA.	
GAIA: 2/2016 SALAKETA	
EZ DA URRATU EJK. GOMENDIOA: ADMINISTRAZIOAN LANEKO SEGURTASUNAREN ETA OSASUNAREN ESPARRUAN SORTUTAKO ORGANOEI JAKINARAZTEA.	
II.	KARGU PUBLIKODUN BATEN INPUTAZIOARI BURUZKO GAIA (5)
GAIA: 3/2016 GOI-KARGUDUN BATEN INPUTAZIOA	
EZ DA URRATU EJK. AHOZKO JUDIZIOA ABIARAZIZ GERO, ERASANDAKO KARGU PUBLIKODUNA KARGUTIK KENTZEA GOMENDATU DA, KAUTELAZKO NEURRI GISA	
GAIA: 4/2016 GOI-KARGUDUN BATEN INPUTAZIOA	
EZ DA URRATU EJK. AHOZKO JUDIZIOA ABIARAZIZ GERO, ERASANDAKO KARGU PUBLIKODUNA KARGUTIK KENTZEA GOMENDATU DA, KAUTELAZKO NEURRI GISA	
GAIA: 6/2016 GOI-KARGUDUN BATEN INPUTAZIOA	
EZ DA URRATU EJK. AHOZKO JUDIZIOA ABIARAZIZ GERO, ERASANDAKO KARGU PUBLIKODUNA KARGUTIK KENTZEA GOMENDATU DA, KAUTELAZKO NEURRI GISA	
GAIA: 7/2016 BEHIN-BEHINEKO LANGILEEN INPUTAZIOA	
EZ DA URRATU EJK. AHOZKO JUDIZIOA ABIARAZIZ GERO, ERASANDAKO KARGU PUBLIKODUNA KARGUTIK KENTZEA GOMENDATU DA, KAUTELAZKO NEURRI GISA	
GAIA: 8/2016 GOI-KARGUDUN BATEN INPUTAZIOA	
EJK EZ DA BEHAR ADINA BETE AHOZKO JUDIZIOA ABIARAZIZ GERO, ERASANDAKO KARGU PUBLIKODUNA KARGUTIK KENTZEA GOMENDATU DA, KAUTELAZKO NEURRI GISA	
III.	HAUTAKETA-PROZESUARI BURUZKO GAIA (1)
GAIA: 5/2016 TOKI-ADMINISTRAZIOAK DEITUTAKO HAUTAKETA-PROZESUAN PARTE HARTZEARI BURUZ	
EZ DAGO GATAZKARIK, SALBU ETA KONTSULTA EGIN DUENAK EZ BALU ZAINDUKO ESLEITUTA DITUEN FUNTZIO PUBLIKOEI ZOR DIEN BEGIRUNEA. EZ DA URRATU EJK.	

B) PLANTEATUTAKO GAIAK ETA HARTUTAKO ERABAKIEN ILDO OROKORRAK

I

KARGU PUBLIKODUNEK HAIEN ZEREGINAK BETETZEN EGINDAKO JARDUKETAK (2)

GAIA: 1/2016

Etika Publikorako Batzorde (EPB) honen Idazkaritzaren postontzira bidalitako mezu elektronikoen bidez, "euskal herritar" anonimo batek adierazten du –izen hori baino ez da ageri bidaltzaileak bete beharreko atalean– "Eusko Jaurlaritzaren (...) Saileko (...) zuzendariaren portaera etiko, moral eta profesional onartezina salatu" nahi duela.

ERABAKIA:

(...) Saileko (...) zuzendariaren aurka aurkeztutako salaketa anonimoa azter dadin onartzea.

Gomendio zehatzik ez ematea, salatzaile anonimoak egindako akusazioak orokorrak eta zehaztugabeak direlako; hain zuzen ere, salatzailea anonimo izateagatik beragatik, ezin zaio salatutakoa gehiago zehazteko eskatu.

Salaketa anonimoak aipatzen dituen gertaerak EAEko sektore publikoak laneko segurtasun- eta osasun-baldintzak bermatzeko hartutako mekanismoen esparruan aztertu eta ebaluatu daitezkeenez, uste dugu Erabaki honen berri eman beha zaiela, bai salaketa anonimoa egin zaion zuzendariari, bai hierarkian haren gainetik daudenei, salaketa horren bidez zeri buruz kexatu diren jakin dezaten, eta, hala badagokie, erabaki dezaten aurretik aipatutako mekanismoren bat erabiltzea komeni den.

Erabaki hau ezin zaionez jakinarazi salaketa jarri zuen pertsonari, ez baitakigu nor den, www.euskadi.eus helbidean argitaratuko da, EPB honek hartutako gainerako erabakiak bezala (Herri Administrazio eta Justizia Saila, Etika Publikorako Batzordea).

GOMENDIOA: ADMINISTRAZIOAN LANEKO SEGURTASUNAREN ETA OSASUNAREN ESPARRUAN SORTUTAKO ORGANOEI JAKINARAZTEA.

GAIA: 2/2016

Etika Publikorako Batzorde (EPB) honen idazkaritzan (...) (e)an erregistratu zen idazkiaren bidez, interesdunak kexa aurkeztu zuen “(...)ko Kudeaketako Zuzendaritzaren” eta (...)ko Administrazio Kontseiluaren jarduna zela eta.

Idazki horrek dioenez, kexaren egileak —zeina, bere lekukotasunaren arabera, “duela 12 urte baino lehenagotik eta (...)n duela 25 urte baino lehenagotik” ari baita lanean— zenbait egoera gatazkatsu bizi izan ditu 2011tik 2015era bitartean, eta egoera horiek —betiere haren iritziz— EPB honen esku-hartzea justifikatu lezakete.

ERABAKIA:

Ez dugu uste (...)ko zuzendari kudeatzaile (...) andreak, bere jokabidearen bitartez, kargu publikodunei legea errespetatzeko eskatzen dien oinarrizko arau etikoa urratu duenik —kasu honetan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 28.2.b) artikuluan jasotako legezko abstentzio-agindua nahita eta jakinda urratu duenik—, ezin delako pentsatu (...)ko burua, zeinarekin bigarren graduko odol-ahaidetasuna baitu, auzian “interesduna” denik.

Ez dugu uste, era berean, (...)ko zuzendari kudeatzaile (...) andreak urratu dituenik EJK-k osotasunari, interes subjektibo ezari eta interes-gatazkari buruz dakartzan arauak, zeren eta —betiere erabaki honetako 29. zenbakian jasotako zehaztasunak ahaztu gabe— ezagutzen ditugun gertaeretan (...)ko buruak izandako esku-hartzea albokoa, formala, mekanikoa eta soil-soilik prozedurazkoa izan baita, erakundearen egitura hierarkikoan betetzen duen eginkizun profesionalaren ondoriozkoa, eta esku-hartze horrek ez baitu hura auzian “interesdun” bihurtzen, eta, hala, (...)ko zuzendari kudeatzaile andrea, zeinarekin bigarren graduko odol-ahaidetasuna baitu, harekin zerikusia duen erabakiren bat hartu behar duen bakoitzean interes-gatazkan erorrazten.

(...)ko Administrazio Kontseiluaren jarduna ez dugu aztertuko, puntu horretan interesdunaren eskaera ez dagoelako behar bezala argudiatuta. Izan ere, ez du lerro bakar bat ere idatzi azaltzeko zergatik aipatutako organoaren jarduketak ikuspuntu etikotik akatsen bat izan dezakeen; eta argi dago ezin direla kide anitzeko organo bateko kide guztiengan gertatu (...)ko zuzendari kudeatzaileak zituen inguruabar pertsonalak, hain zuzen ere kexaren egileak (...) andrearen aurka formulatu duen gaitzespenaren oinarri nagusi izan direnak.

Eragindako alderdiei iradokitzen diegu kontuan har dezatela laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan indarra duen araudia betearazteko (...)k sortutako organoen baitan ekimenen bat sustatzeko aukera.

(...) andreari gomendatzen diogu, (...)ko zuzendari kudeatzaile gisa egiten duen lanaren objektibotasun eta inpartzialtasunaren inguruko zalantza edo susmorik txikiena ere desagerrarazte aldera eta, horrela, bere zintotasun eta osotasun irudia babeste aldera, tentu handiz joka dezala (...)ri eragiten dioten erabakiak hartzerakoan, eta ikusten duenean berak

arazoren batean parte hartuz gero interes-gatazka baten susmorik txikiena ere sor daitekeela, ez dezala esku hartu arazo horretan.

Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta haien Interes Gatazkak arautzen dituen Legeak eta EJK-k agindutakoa bete behar duten (...)ko kargu publikodun guztiei —eta, batez ere, erakundeko zuzendari nagusiari, (...)ko zuzendari kudeatzaileari eta Langileriaren zuzendariari— gogora ekartzen diegu, erabaki honetako 9. eta 26. puntuetan azaldutako gogoeten ildotik, bi testu horiek ezartzen dizkieten jokaera-arauek, lidergoarekin, bikaintasunarekin eta politikaren eta kudeaketaren arteko bat-etortzearekin lotuta, behartzen dituztela pertsonalki ahalegintzera, esleituta dauzkaten eskumenen eremuan, interesdunaren aurka izapidetu den diziplina-espedienteko instruktoarak bere ebazpen-proposamenean zehaztu dituen “arloan” hobekuntzan.

GOMENDIOA: ADMINISTRAZIOAN LANEKO SEGURTASUNAREN ETA OSASUNAREN ESPARRUAN SORTUTAKO ORGANOEI JAKINARAZTEA.

EZ DA URRATU EJK.

KARGU PUBLIKODUNAREN INPUTAZIOARI BURUZ (5)

GAIA: 3/2016

Etika Publikorako Batzordearen (EPB) Idazkaritzara posta elektronikoz igorritako mezu batean, interesatuak, Eusko Jaurlaritzako zuzendaria, irizpena eskatu zion organo honi Instrukzio-Epaitegian tramitatzen ari diren aurretiazko eginbideetan ikertu gisa entzuna izateko jaso duen zitazioaren gainean.

Bere *mail* laburrean, Etika Publikorako Batzordeari jakinarazten dio (...) (e)an aipatutako epaitegiko zitazio bat jaso zuela, eta bertan esaten zela epaitegira joan beharko zuela “ikertu gisa, egitate batzuen erantzule den aldetik ondasun publikoak –itxuraz– bidegabe eralgitzeagatik.”.

ERABAKIA:

Interesdunak Justizia Administrazioari laguntzen jarraitu behar du, eta unean-unean bete behar ditu Instrukzio Epaitegiak igortzen dizkion zitazioak ikertu gisa ageri den aurretiazko eginbideen eremuan.

Ikusita ikerketa zein inguruabarretan egin den eta aintzat hartuta erabaki honetan jaso diren kontsiderazioak, kontsultaren egileak euts diezaioke betetzen ari den karguari, harik eta auzitegi edo epaile eskudunak, hala badagokio, ahozko judizioa abiaraztea erabakitzeko autoa ematen duen arte.

EPB honek gomendatzen du, prozedura horren barruan egiten ari diren jarduera judizialen amaieran ahozko judizioa abiaraztea erabakitzen baldin bada, kargu publikoa kautelaz kargugabetzea, EJKren 15.5. artikuluan eta erabaki honen 5. puntuan adierazten den moduan.

AHOZKO JUDIZIOA ABIARAZIZ GERO, ERASANDAKO KARGU PUBLIKODUNA KARGUTIK KENTZEA GOMENDATU DA, KAUTELAZKO NEURRI GISA

EZ DA URRATU EJK.

GAIA: 4/2016

Etika Publikorako Batzordearen (EPB) Idazkaritzara igorritako idazki batean, (...) interesatuak, Eusko Jaurlaritzako zuzendaria bera, irizpena eskatu zion organo honi Instrukzio-Epaitegian tramitatzen ari diren aurretiazko eginbideetan ikertu gisa entzuna izateko jaso duen zitazioaren gainean.

Bere mezuan, Etika Publikorako Batzordeari jakinarazten dio “(...)k jarritako kereila dela eta, (...) gaiaren inguruko *hainbat kontu direla eta(...)*” epaitegiko zitazio bat jaso zuela, eta bertan esaten zela epaitegira joan beharko zuela "ikertua zen neurrian, zer esaten zuen entzun zezaten epaitegian, delituok izan zitzaketen ekintzen arduradun izateagatik, ustez: prebarikazioa, ondasun publikoak bidegabe eralgitzea, eta administrazioaren kontratazioetan iruzur egitea..

ERABAKIA:

Interesdunak Justizia Administrazioari laguntzen jarraitu behar du, eta unean-unean bete behar ditu Instrukzio Epaitegiak igortzen dizkion zitazioak ikertu gisa ageri den aurretiazko eginbideen eremuan.

Ikusita ikerketa zein inguruabarretan egin den eta aintzat hartuta erabaki honetan jaso diren kontsiderazioak, kontsultaren egileak euts diezaioke betetzen ari den karguari, harik eta auzitegi edo epaile eskudunak, hala badagokio, ahozko judizioa abiaraztea erabakitzeko autoa ematen duen arte.

EPB honek gomendatzen du, prozedura horren barruan egiten ari diren jarduera judizialen amaieran ahozko judizioa abiaraztea erabakitzen baldin bada, kargu publikoa kautelaz kargugabetzea, EJKren 15.5. artikuluan eta erabaki honen 5. puntuan adierazten den moduan.

AHOZKO JUDIZIOA ABIARAZIZ GERO, ERASANDAKO KARGU PUBLIKODUNA KARGUTIK KENTZEA GOMENDATU DA, KAUTELAZKO NEURRI GISA

EZ DA URRATU EJK.

GAIA: 6/2016

EPB Etika Publikorako Batzordearen Idazkaritzara posta elektronikoz igorritako mezu batean, interesatuak, Eusko Jaurlaritzako zuzendaria bera, irizpena eskatu zion organo honi Instrukzio-Epaitegian tramitatzen ari diren aurretiazko eginbideetan ikertu gisa entzuna izateko jaso duen zitazioaren gainean.

Epaitegiko egoitzara joateko zitazioa duela jakinarazi baino ez dio egin EPB honi mezuan, eta "(...) ikertu gisa deklaratu" behar duela han "ustez prebarikatu, ondasun publikoak bidegabe eralgi eta kontratazioan iruzur egin den gertaera batzuen erantzule izateagatik". Epaitegi horretako epaile titularrak emandako probidentziaren kopia bat dakar mezuak berekin; hor azaltzen da kontsulta ekarri duen zitazioa.

ERABAKIA:

Interesdunak Justizia Administrazioari laguntzen jarraitu behar du, eta unean-unean bete behar ditu Instrukzio Epaitegiak igortzen dizkion zitazioak ikertu gisa ageri den aurretiazko eginbideen eremuan.

Ikusita ikerketa zein inguruabarretan egin den eta aintzat hartuta erabaki honetan jaso diren kontsiderazioak, kontsultaren egileak euts diezaioke betetzen ari den karguari, harik eta auzitegi edo epaile eskudunak, hala badagokio, ahozko judizioa abiaraztea erabakitzeko autoa ematen duen arte.

EPB honek gomendatzen du, prozedura horren barruan egiten ari diren jarduera judizialen amaieran ahozko judizioa abiaraztea erabakitzen baldin bada, kargu publikoa kautelaz kargugabetzea, EJKren 15.5. artikuluan eta erabaki honen 5. puntuan adierazten den moduan.

Interesdunari eskatzen diogu bere kontsulta ekarri duen prozesuan epaitegiak ematen dituen ebazpenen berri emateko EPB honi.

AHOZKO JUDIZIOA ABIARAZIZ GERO, ERASANDAKO KARGU PUBLIKODUNA KARGUTIK KENTZEA GOMENDATU DA, KAUTELAZKO NEURRI GISA

EZ DA URRATU EJK.

GAIA: 7/2016

Etika Publikorako Batzordearen (EPB) Idazkaritzara posta elektronikoz igorritako mezu batean, kontsulta egin duen kargu publikoak irizpena eskatu zion organo honi, Instrukzio Epaitegian tramitatzen ari diren aurretiazko eginbideetan ikertu gisa entzuna izateko jaso duen zitazioaren gainean.

Instrukzio Epaitegiko egoitzara joateko zitazioa duela jakinarazi baino ez dio egin EPB honi mezuan, eta "(...) ikertu gisa deklaratu" behar duela han "ustez prebarikatu, ondasun publikoak bidegabe eralgi eta kontratazioan iruzur egin den gertaera batzuen erantzule izateagatik". Epaitegi horretako epaile titularrak emandako probidentziaren kopia bat dakar mezuak berekin; hor azaltzen da kontsulta ekarri duen zitazioa.

ERABAKIA:

Interesdunak Justizia Administrazioari laguntzen jarraitu behar du, eta unean-unean bete behar ditu Instrukzio Epaitegiak igortzen dizkion zitazioak ikertu gisa ageri den aurretiazko eginbideen eremuan.

Ikusita ikerketa zein inguruabarretan egin den eta aintzat hartuta erabaki honetan jaso diren kontsiderazioak, kontsultaren egileak euts diezaioke betetzen ari den karguari, harik eta auzitegi edo epaile eskudunak, hala badagokio, ahozko judizioa abiaraztea erabakitzeko autoa ematen duen arte.

EPB honek gomendatzen du, prozedura horren barruan egiten ari diren jarduera judizialen amaieran ahozko judizioa abiaraztea erabakitzen baldin bada, kargu publikoa kautelaz kargugabetzea, EJKren 15.5. artikuluan eta erabaki honen 5. puntuan adierazten den moduan.

Interesdunari eskatzen diogu bere kontsulta ekarri duen prozesuan epaitegiak ematen dituen ebazpenen berri emateko EPB honi.

AHOZKO JUDIZIOA ABIARAZIZ GERO, ERASANDAKO KARGU PUBLIKODUNA KARGUTIK KENTZEA GOMENDATU DA, KAUTELAZKO NEURRI GISA

EZ DA URRATU EJK.

GAIA: 8/2016

2016ko (...) (e)(a)n Etika Publikorako Batzordearen (EPB) Idazkaritzara posta elektronikoz igorritako mezu batean, interesdunak –Eusko Jaurlaritzako zuzendaria–, irizpena eskatu zion organo honi, Instrukzio-epaitegian tramitatzen ari diren aurretiazko eginbideetan ikertu gisa entzuna izateko jaso duen zitazioaren gainean.

Mezu elektronikoko labur eta zehatz batean, kontsulta-egileak EPB honi eskatzen dio aipatutako "aurretiazko eginbideen prozesua" ebalua dezan, "behar beste argibide emateko" prest dagoela adieraziz.

Mezuari dagokion zitazio-zedula erantsi zaio, eta bertan eskatzen zaio interesdunari Epaitegiaren egoitzan agertzeko "ikertu gisa entzuna izateko, Prozedura Kriminalaren Legearen 486. artikuluan ezarritakoarekin bat, itxuraz delitu izan daitezkeen prebentzio administratiboetako eta bidegabe eralgitze/maulazko egitateengatik".

ERABAKI DU:

Interesdunak Justizia Administrazioari laguntzen jarraitu behar du, eta unean-unean bete behar ditu Instrukzio Epaitegiak igortzen dizkion errekerimenduak, jada ikertu gisa deklaratu duen aurretiazko eginbideen eremuan.

Ikusita deklarazioa zein inguruabarretan egin den eta aintzat hartuta erabaki honetan jaso diren kontsiderazioak, kontsultaren egileak euts diezaioke betetzen ari den karguari, harik eta auzitegi edo epaile eskudunak, hala badagokio, ahozko judizioa abiaraztea erabakitzeke autoa ematen duen arte.

EPB honek gomendatzen du, prozedura horren barruan egiten ari diren jarduera judizialen amaieran ahozko judizioa abiaraztea erabakitzen baldin bada, kargu publikoa kautelaz kargugabetzea, EJKren 15.5. artikuluan eta erabaki honen 5. puntuan adierazten den moduan.

EJKren 15. 5. artikuluan ezarri bezala EPB honi kontsulta egiteko betebeharra "behar adina bete ez" denez, proposatzen dugu, 3.2 artikuluan ezarritakoarekin bat, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian horren berri emateko ohar bat txertatzea.

AHOZKO JUDIZIOA ABIARAZIZ GERO, ERASANDAKO KARGU PUBLIKODUNA KARGUTIK KENTZEA GOMENDATU DA, KAUTELAZKO NEURRI GISA

EPB-RI KONTSULTATZEKO BETEBEHARRA –EJK-REN 15 d) ARTIKULUAN EZARRIA– BEHAR BESTE EZ BETETZEA.

HAUTAKETA-PROZESUARI BURUZ (1).

GAIA: 5/2016

.....(e)koren(e)an, interesdunak, Eusko Jaurlaritzako (...)ko zuzendariak, Etika Publikorako Batzordeari (EPB) galdetu zion ea etikoki bidezkoa den (...)k (...) teknikarien lan-poltsa eratzekokoren ... (e)an deitu zuen hautaketa-prozesuan berak parte hartzea. Hau galdetu zuen, zehatz-mehatz: ea aipatutako prozesuetan parte hartuko balu nolabait urratu egingo lukeen Gobernu Kontseiluak 2013ko maiatzaren 28ko Erabakiaren bidez onartu zuen Etika eta Jokabide Kodea (EJK).

ERABAKIA:

Interesdunak kontsultan aipatzen duen hautaketa-prozesuan parte hartuz gero, ez dira urratzen EAEko sektore publikoko kargudunei aplikatu beharreko "arduraldi oso eta eskusibo"aren printzipioa eta bateraezintasunen araubidea, hautaketa-prozesu batean parte hartzea ez delako ekonomia-, merkataritza- edo industria-jarduera bat gauzatzea, baizik eta Konstituzioaren 23.2 artikulua ematen duen oinarrizko eskubideaz baliatzea; hau da, kargu eta funtzio publikoak betetzea.

Kontsultagileak bere ohiko zereginak betetzen dituen administrazio publikoa ez den beste administrazio batek deitu duenez parte hartu nahi duen hautaketa-prozesua, ez dago interes-gatazkarik; errotik baztertuta geratzen da aukera hori.

Gainera, zintzotasun, eredugarritasun eta bikaintasunaren balio, printzipio eta jokabideak ere ez dira urratzen interesdunak kontsultan aipatzen duen hautaketa-prozesuan parte hartuta.

Kontsultagileak, funtzio eta kargu publikoak betetzeko konstituzio-eskubidea betetzen ari dela, esleituta dituen zeregin publikoei behar besteko arretarik jarriko ez balie, eta, ondorioz, betetzen duen kargu publikoan duen inplikazioa gutxituko balitz eta karguak eskatzen dizkion betebeharrak eta obligazioak intentsitate gutxiagoz beteko balitu —hautaketa-prozesuetan ebaluatu behar dituen materialak prestatu behar izateagatik—, gerta liteke bikaintasunari lotutako jokabide-arauak urratzea, eta, oro har, kargu publikodunek eginkizunak "konpromiso handiz" eta "beti ahaleginduz" betetzeko obligazioaren balio eta printzipioekin lotutako jokabide-arauak ere urratzea. Ondorioz, bere karguko zereginak ardura handiz bete ditzala gomendatzen diogu interesdunari, eta, arreta handia jar dezala kargurako izendatua izan zenetik egiaztatu dituen dedikazio, errendimendu eta eraginkortasunaren estandarrak jaitsi ez daitezten.

EZ DAGO GATAZKARIK, SALBU ETA KONTSULTA EGIN DUENAK EZ BALU ZAINDUKO ESLEITUTA DITUEN FUNTZIO PUBLIKOEI ZOR DIEN BEGIRUNEA.

EZ DA URRATU EJK.

6

Ondorioak eta gomendioak

Kontuan izanda 2015. urteko memorian jasotako proposamenak eta iradokizunak berriki sartu direla Etika eta Jokabide Kodean, hain zuzen ere XI. legealdia hastearekin batera, Etika Publikorako Batzorde honek ez dauka une honetan proposamen berririk mahai gainean jartzeko. Baina komenigarria iruditzen zaio Etika eta Jokabide Kodeari buruz berri eman eta prestakuntza eskaintzen jarraitzea, bai administrazioan bai gizartean, hain zuzen ere pedagogia egiteko eta eredu izateko duen asmoarekin bat.